

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

**ATZERRITARREN NAZIONALITATEA
PARLAMENTU-KONTROLAREN ETA
GARDENTASUNAREN MUGA GISA:
PROZEDURAREN ANALISIA ETA ESKUBIDEEN
BABESA EXPERIENTZIA ENPIRIKOTIK**

IBAI ETXAUTZ DIEGUEZ

TUTOREA: IKER BARBERO GONZALEZ

GRADU AMAIERAKO LANA

EKAINA 2021

Laburpena eta hitz gakoak

LABURPENA:

Lan honetan atzerritarren nazionalitateak gardentasunean eta parlamentu-kontrolean duen papera aztertzen da. Izan ere, egun, nazionalitate horrek muga gisa jokatzen du Administrazio Publikoengandik informazioa eskuratzeko. Gaiari bi aldetatik heltzen zaio. Alde batetik, herritar xume batek informazio publikorako sarbiderako duen eskubidetik, maiz gardentasun-ataritik egikaritzen dena. Beste aldetik, Parlamentariaren ikuspuntutik, hau da, haren informazio eskuratzeko eskubide konstituzionaletik hain zuzen ere. Horretarako gardentasun eta kontrol-parlamentarioa arloan Nazioartean, Europan bai Espainiar Estatuan dagoen araudia aztertzen da. Horretaz gain, bai herritarren bai Parlamentariaren esperientzia enpirikoak erabiltzen dira informazioa ukatzeko argudioak desmuntatzeko, bai eta ondorioak ateratzeko.

HITZ- GAKOAK

**1- GARDENTASUNA 2- PARLAMENTU-KONTROLA 3- NAZIONALITATEA
4- MUGA 5- INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA**

ABSTRACT:

This work, analyses the effect of foreigner's nationality in transparency and parliamentary control. In fact, nowadays, the nationality is barrier to get information from Public Administration. The topic is analysed from two perspectives. On one hand, from the citizen's right to access to public information, which is normally fulfilled via transparency portal. On the other hand, from the point of view of a member of the parliament, which holds the constitutional right to get information. To do that, the work analyses the different international regulations along with the European and Spanish ones. Beyond that, real cases are used to dismantle the arguments to deny information, and also to draw conclusions.

KEY WORDS:

**1- TRANSPARENCY 2- PARLIAMENTARY-CONTROL 3- NATIONALITY 4-
LIMIT 5- RIGHT TO ACCESS INFORMATION**

AURKIBIDEA

Laburpena eta hitz gakoak	2
Laburdurak	4
I. SARRERA	5
I.1. Gaira hurbiltzea	5
I.2. Eztabaida teorikoa	6
I.2.1. Gardentasun aroa Zuzenbide Publikoan	6
I.2.2 Gardentasuna Immigrazio eta Atzerritarren Zuzenbidearen gaitan	8
I.3. Helburuak, hipotesia eta metodologia	8
II. MARKO NORMATIBOA	9
II.1. Gardentasunaren inguruko panoramika arau-esparruan	9
II.1.1 Gardentasuna Nazioarteko eta Europako Zuzenbidean: Tratatuak, Erregelamenduak eta EGEA eta EBJAren epaiak	9
II.1.2 Gardentasuna Espainiako Estatuan: Legeak, Erregelamenduak, eta Epaiak	12
<i>II.1.2.1 Gardentasunari buruzko 19/2013 Legea</i>	13
<i>II.1.2.2 Estatuko Sekretu Ofizialen Legea</i>	15
<i>II.1.2.3 Herritarrak: Informazioa eskuratzeko eskaeraren prozedura</i>	17
II.2. Galdera parlamentarioa: funtzioa eta baliabideak	18
III. KASU-ANALISIA	22
III.1 Gardentasun atarian eginiko informazio-eskaera: 001-040538 eta 001-040934 txostenak	22
III.2 Diputatuen Kongresuko Mahaiari egindako 73924 galdera, 2020ko azaroaren 26koa	27
IV. ONDORIOAK	31
V. BIBLIOGRAFIA	33

LABURDURAK

ABZ: Atzerritarrak Barneratzeko Zentroa

AG: Auzitegi Gorena.

DKE: Diputatuen Kongresuko Erregelamendua

EB: Europar Batasuna

EBFBT: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua

EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

EBOEG: Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna

EBT: Europar Batasuneko Tratua

EGEA: Europako Giza Eskubideen Auzitegia

EK: Espainiako Konstituzioa

EZPNI: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna

GEAU: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala

GEEH: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena

GGOK: Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseilua

GGOK: Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseilua

GIPSGOL: Gardentasunari, Informazio Publikorako Sarbideari eta Gobernu Onari buruzko Legea.

GKE: Gobernu Kanpoko Erakundea

KA: Konstituzio Auzitegia

SOL: Sekretu Ofizialen Legea

I. SARRERA

I.1. Gaira hurbiltzea

Asko dira azken urteetan “immigrazio-krisi” gisa definitutako testuinguru honen baitan gardentasunaren eta informazioa eskuratzeko eskubidearen alde egiten duten agenteak. Batetik, gizarte zibileko elkarte, Gobernu Kanpoko Erakunde edota herritar soilak daude, immigrazio arloak jorrazteko dauden oztopoak kezkatzen dituenak. Bestetik, Espainiako Instituzio Publikoetan jarduten duten Parlamentari, politikari eta abarrak. Izan ere, gai hauetan dagoen iluntasunak euren jarduna mugatzen dute. Praktikan, bai hiritargoak bai administrazio publikoetan jarduten duten herritarren ordezkariak erantzun berdinak jasotzen dituzte immigrazio arloko informazio zehatz batzuk eskuratu nahi dituztenean. Hala nola, deportatutako etorkinen kopurua, nora deportatu diren, zer baliabide erabili diren haiek deportatzeko edota zer nazionalitatekoak diren deportatzen diren emigratzaileak.

Beraz, normalean Barne Ministerioari zuzendutako informazio eskaera hauetan herritar xumea izateak edo eskubide kualifikatudun parlamentaria izateak ez dakar funtsean inolako diferentziarik, noski, gai hauen inguruan informazioa eskuratzeari buruz ari garenean. Zergatik ez da errespetatzen Parlamentarien informazio eskuratzeko eskubide Konstituzionala? Zertan oinarritzen dira Gobernua edo bestelako instituzio publikoak informazioa ukatzeko? Erabiltzen dituzten irizpide eta arrazoibideak lege-oinarria dute edo arbitrarioak dira? Lanean zehar kasu bateko zein besteko adibideak jorratuko dira galdera hauei erantzun ahal izateko. Beraz, esperientzia enpiriko horiek erabiliko dira informazioa eskuratzeko muga horiek kolokan jartzeko eta ondorioak ateratzeko.

I.2 Eztabaida teorikoa

I.2.1 Gardentasun aroa Zuzenbide Publikoan

2008an sortutako Krisi ekonomiko finantziarioaz geroztik, Administrazio Publikoekiko mesfidantzaren hazkundera egon da. Administrazio Publikoen eraginkortasun ezak eta ustelkeriak gizarteak hauetan duen konfiantza gutxitzea eragin du. Horrez gain, Sanchez Barrilaok aipatu bezala “iraultza teknologikoak, informazioaren gizarteak, nazioz gaindiko integrazioak eta globalizazioak eragina izan dute herritarrek administrazioan duten parte hartze faltan eta Administrazioarekiko sinesgarritasun faltan” (2016, 159). Testuinguru honetan, Publizismoaren eta gardentasunaren aldeko korranteak nabarmen hazi egin dira. Bi printzipio hauek, Administrazioaren jardunean balore etikoak bermatzea eta garatzea dute oinarri. Izan ere, Administrazio Publikoaren jardunean ekonomia, eraginkortasuna eta efizientzia oinarri badira, etika ere jardun horren parte izan behar da (Delpiazzo, 2008).

Hori burutu ahal izateko, Gizarteak nolabaiteko kontrola ezarri behar du Administrazioaren gain, eta horrek Administrazioaren jarduna herritarrentzat gardena izatea suposatzen du. Kontrol soziala “bakoitzaren edo beste baten funtzioen normaltasunaren frogatzean” (Giannini, 1976) datza, hau da jardun hori arau eta balore batzuk oinarri hartuta gauzatzen direla frogatzea. Definizio horretatik kontrol sozialaren bi osagai nagusiak ondorioztatzen dira: Funtzioa eta Arauen multzoa. Funtzioa, ataza, lan edo jarduera gisa ulertzen da. Arauen multzoa, berriz, jarduera hori aurrera eramateko erabilitako arau juridiko zein ez juridikoak (baloreak, kasu). Hortaz, aktibitate baten kontrolak, aktibitate horren gaineko judizio logikoa esan nahi du, jarduera hori gauzatzeko erabilitako arauak kontuan harturik.

Era berean, kontrolak hiru osagai nagusi ditu. Lehenengoz, informazio hedabideak edo botereak, hauen bidez kontrola egiten duenak Administrazioaren jardueraren berri izaten du. Bigarrenik, kontrola egiteko prozedimendua, zeinaren bidez kontrolatzaileak jardueraren oniritzia ematen du edo ez du onartzen. Hirugarrenik, jardueraren konprobazio horrek ekarriko lukeen ondorioa edo efektuak (Sayagues Laso, 1959).

Azaldutako Kontrol sozial hau Publizitate eta Gardentasun printzipioekin erabat loturik dago. Publizitate printzipioak, Administrazioak bere jarduna erakustean datza, baina Gardentasuna pauso bat harago joatea da, Administrazioa “kristal garden” gisa ikustean baitatza.

Autore askoren ustez, Gardentasuna Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratikoaren exigentzia izan behar da, bai eta Administrazio Publikoaren jardunaren ezaugarri (Rodriguez-Arana Muñoz, 1995). Administrazioa gardena izateak herritarraren posizioa erabat indartzen du, eta lagundu egiten du herritarren informaziorako sarbidean. Honek bi funtzio betetzen ditu. Batetik, herritarrak babesten ditu egintza administratiboen jasotzaile gisa, euren interesak defendatzeko beharrezkoak eta egoki diren jakintzetara sarbidea dutelako. Bestetik, interes kolektiboen defentsarako guztiz beharrezkoa da, izan ere interes horien defentsan jarduten duten antolakundeei baliagarria den informazioa helarazten die (Rodriguez-Arana Muñoz, 1995)

Printzipio honen beste dimentsio bat zera da: Gardentasunak herritarren parte hartzea eskatzen du erabaki publikoak hartzeko prozesuetan. Honek talka egiten du funtzio publikoaren sekretu behararekin. Rodriguez-Aranaren ustetan Administrazio Publikoaren menpe dauden langileak ikuskatu behar dira, artxiboatarako eta dokumentuetarako sarbide askatasuna hizpide hartuta (1995, 14). Aitzitik, bere aburuz, informatzeko eginbeharrak erreserba eta sekretua babesteko eginbearra ordezkatu behar du. Sekretua gai jakin batzuetara soilik mugatu egin behar da, esaterako, estatu sekretua, sumarioaren sekretua edota bizitza pribatuaren intimitatea eta babesa.

Aipatu bezala, Gardentasunak zerikusi handia du moralitate eta etika publikoarekin. Izquierdo autoreak dioenez moralitatea, obligaziozko iturri subjektibo gisa ulertuta, guztiz beharrezkoa da administrazioan (1994, 34). Izan ere, jardun burokratiko mekanismo perfektu gisa antolatu nahi izan den arren, ustelkeria ez da kasu guztietan ekidin. Etikak, beraz, bi plano ditu: normatiboa eta subjektiboa. Lehenengoan, eskubide eta betebeharrak administrazio zuzenbide zigortzailearen baitan kokatu litzateke. Bigarrenean, berriz, gardentasuna zerbitzu publikoaren oinarritzko balorea da, Administrazioaren izatearekin lotuta.

I.2.2 Gardentasuna Atzerritartasun Zuzenbidearen eta Immigrazio gaien arloan

Atzerritartasun edo immigrazio gaien arloan Gardentasunak beste inplikazio batzuk hartzen ditu. Jakina denez, etorkinak, eta bereziki egoera irregularrean bizi diren etorkinak, babesgabetasun eta defentsa gabezia nabaria sufritzen dute. Era berean, Administrazio Publikoaren aldetik diskriminazio egoerak jasaten dituzte, arrazakeria sufritzen dute, zailtasun ugari dituzte prestazio sozialak lortzeko eta indar polizialen aldetik jazarpena ere jasaten dute.

Nabaria da, beraz, immigrazio arloaren inguruan dagoen argitasun falta. Asko dira gai honetan informazio sarbiderako eskubidea baliatu nahi eta pareta baten kontra jotzen duten herritar, gobernuz kanpoko erakunde eta baita parlamentari, zinegotzi eta politikariak ere. Esate baterako, “Acces Info Europe” elkarteak Espainiako Barne Ministerioari Marokoko Erreinuari emandako 32 milioi euroko laguntzari buruzko informazioa eskatu zionean, Ministerioak ezezkoa eman zion, lehen aipatutako Gardentasun Legeko 14.1c) artikuluan oinarrituta (Blanes Climent, 2021).

Gai hauetan, orokorrean Administrazioak eta bereziki Gobernu edo Barne-ministerioak, sarri argudiatzen dute nazioarteko harreman diplomatikoen kaltetzea argudio gisa. Honek, funtsean, gardentasun falta dakar. Batetik, herritarrei ez zaie Administrazioak gai hauetan hartzen dituen erabakiei eta egiten dituen egintzei buruzko informazio argirik heltzen. Bestetik, parlamentariak ezin dute aurrera eraman haien izaera ezaugarritzen duen parlamentu-kontrola. Zaila da beraz, gai hauen inguruko iritzi aske eta formatua garatzea.

I.3 Helburuak, hipotesia eta metodologia

Gratu Amaierako Lan honek zenbait helburu ditu. Batetik, gardentasunaren hausnarketa egitea. Bigarrenik, arlo honetan dauden arauen azterketa egitea, kontzeptu hau Espainiako ordenamendu juridikoak nola barneratu eta arautzen duen jakiteko. Horretarako legeetara, dekretuetara eta bestelako xedapenetara joko dut. Azkenik, helburu garrantzitsuena, eskubide honek errealitatean duen isla aztertzea da, batez ere nazionalitateak honen mugaketan daukan papera ikusita. Horretarako, bi alderditik helduko zaio gaiari: parlamentu-kontrol eta parlamentarien aldetik eta herritar xumeek

informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidearen aldetik. Hau eginez gaia lantzean azaleratzen den hipotesia honakoa da: “Nazioarteko harremanak kolokan jartzea eta nazioaren segurtasuna kaltetzea” argudio gisa hartzen dira informazioa lortzeko sarbide eskubidea eta gardentasun eskubidea mugatzeko edo oztopatzeko.

Lan honek hiru atal nagusi ditu. Lehenengo eta behin, Gardentasunaren inguruan azken urteotan egon den eztabaidari begirada bat bota zaio. Hau da, marko teorikoan zer suposatzen duen gardentasunak hainbat autoreren ustetan, eta baita ere zer dimentsio hartzen duen honek atzerritartasun gaien inguruan hitz egiten dugunean. Bigarrenik, Gardentasunak duen marko normatiboa aztertuko da. Bi arlo ezberdinduko dira. Batetik, Parlamentu-kontrola eta bereziki parlamentariak informazioa lortzeko duten eskubide eta betebeharrak arituko gara. Honen barruan, kontrol horretan funtsezkoa den galdera-parlamentarioak duen garrantzia azpimarratuko da. Bi plano ezberdinduko dira: Europar arloa eta Espainiako Estatuaren arloa. Bestetik, orokorrean gardentasunak duen garrantzia eta irismenari erreparatuko zaio. Nazioarte eta Estatu mailan dauden ezberdintasunak aztertuko dira, eta Estatuan bertan zer Lege, Erregelamendu eta arauk duen pisu handiena.

Hirugarrenik, kasuen analisisia egingo da. Benetako esperientzia enpirikoetatik hasita hipotesian azalduetako ondorioztatuko da. Bi plano ezberdinduko dira: Informazio eskaera herritar edo elkarte batek egiten duenean eta Parlamentari batek egiten duenean. Hortaz, kasu hauek aztertu eta argudiaketa egingo da. Azkenik lanaren ondorioak azalduko dira.

II. MARKO NORMATIBOA

II.1 GARDENTASUNARI BURUZKO PANORAMIKA ARAU-ESPARRUAN

II.1.1 Gardentasuna Nazioarteko eta Europako Zuzenbidean: Tratatuak, Erregelamenduak eta EGEA eta EBJAren epaiak

Informazioa eskuratzeko eskubideak garrantzia handia hartu du Europar Batasunean. Autore askok baieztatu dute Europar Batasuneko eremuan eskubide honen gainean adostasuna dagoela. Arazoa, berriz, Estatuetan eskubide honen aitortzan eta aplikazioan daukagu. Espainia, eta gero aztertuko dugun bezala, European gardentasun eta informazioa

eskuratzeko eskubide arloetan lege zehatz bat sortzen azkenetariko Estatua izan da. EB-ko herrialde gehienek arlo hau araututa zuten Espainiak 9/2013 Legea, hau da, gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzko Legea argitaratu zuenean.

Bestalde, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak (EGEA) eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) garrantzia handia izan dute aipatutako eskubideen aitortzan. Izan ere, baieztatu daiteke bi auzitegi hauek eskubide hauen arloan egindako interpretazioaren eboluzioa oso aurrerakoa izan dela. Hala ere, Eloisa Perez Conchilloren hitzetan, “Espainiako Gardentasun Legeak – eta bereziki informazioa eskuratzeko eskubideari eman dion ikuskerak – ez du EJJA eta EGEAren jurisprudentziaz erator daitekeen eskubideen ikuskera demokratiko eta parte-hartzailea barne hartu, hau da, ikuskera eguneratuago bat” . Beraz, esan daiteke Espainiako kasuan eskubide hauen balioa kolokan jartzen dela, aldi berean nazioarteko arloan oinarritzko eskubide gisa aitortzeko eta ulertzeko pausuak ematen ari direnean. Izan adierazpen askatasunaren eskubidearen barnean edo eskubide autonomo gisa.

Bai Europako Kontseiluan bai Europar Batasunean aipatutako eskubideak aitortzeko oinarri izan dituzten arauak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko (GEAU) 19. artikulua eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (EZPNI) 19. artikulua dira. Bi xedapen hauek adierazpen askatasuna eta informazioa eta iritzia bilatzeko, jasotzeko eta hedatzeko askatasunak jasotzen dituzte. Honekin bat, Europako Kontseiluan, bereziki garrantzitsua da dokumentu publikorako sarbiderako 205 Hitzarmena, Tromso hirian sinatua eta 2009ko ekainaren 18tik Estatuen berrespenerako irekia.

Bestetik, azpimarratu beharra dago Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (GEEH) eskubideen berme gisa, eta EGEAren lana arlo honetan. GEEHren 10. artikulua adierazpen askatasuna eta informazio eta ideiak jasotzeko eta komunikatzeko askatasunak xedatzen ditu. Artikulu honetan, “informazioa eskuratzeko eskubidea” zuzenean aipatzen ez den arren, EGEAk bere jardunean horrelaxe aitortu egin du. Esan beharra dago, informazioa eskuratzeko eskubidearen aitortzak ez duela beti irizpide uniforme izan, hala ere EGEAk honen inguruan egin duen interpretazio aurrerakoiak garrantzia handia izan du egun daukagun egoerara iristeko. Gonzalez Alonsoren arabera nazioz gaindiko Europako eremuan “dokumentuetarako informaziorako sarbide eskubidea Europar Batasuneko Instituzioetan gailendu behar den irekiera eta gardentasun

printzipioetako osagai nagusienetako bat izan behar da” (2008, 680 eta 681). Are gehiago, bere hitzetan eskubide hau “zeharo beharrezko mekanismoa izan da Europako instituzioek zuten defizit demokratikoari aurre egiteko”.

Nabarmendu beharrezkoa da baita ere, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 15.3 artikulua, Europar Batasuneko Tratatuaren (EBT) 1, 10 eta 11 artikulua garatzen dituena. Porrás Ramírezen arabera, 15.3 artikulua “dokumentuetarako sarbide publikorako eskubidea, Europar Batasunaren funtzionamendu demokratikoa bermatzeko funtsezko baldintza gisa aurkezten da, eta ez soilik estrategia edo politika gisa, orain arte aurkezten zen bezala” (2014, 286). Aipatu beharrezkoa da, 2009ko Lisboako Tratatuarekin Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunak (EBOEG) balio juridikoa eta eraginkortasun zuzena bereganatu zuela. Horrela, nazioz gaindiko Europako eremuan funtsezko tresna bihurtu egin zen.

Azkenik aipatu beharra dago Europako Parlamentu eta Kontseiluko (EB) 1049/2001 Erregelamendua, Europako Parlamentu, Kontseilu eta Batzordeko dokumentuen sarbide publikoa xedatzen duena. Erregelamendu honek helburu du dokumentuetarako sarbide ahalik eta zabalena bermatzea; eskubide honen erabiltze ahalik eta errazena bermatzen duten arauak ezartzea; eta dokumentuetarako sarbidean jarduera administratibo egokia bermatzea.

Europako Parlamentuaren eskuduntza garrantzitsuenetako bat Europar Batasunaren botere betearazlearen kontrolean datza, batez ere Batzordearen kontrolean, baina baita ere beste gorpu eta erakunde batzuen ere bai. Kontrol honek forma ugari hartu ditzake: galdera parlamentarioa, ikerketa batzordeak eta batzorde bereziak, Europako Batzordearen informazio betebeharrak, erabaki delegatuen azterketa eta diziplina-prozedura.

Arlo honetan, Europako Batzordeari galdera egiteko eskubidea, Europako Parlamentuko parlamentarien eskubide garrantzitsuenetarikoa da (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 230. artikulua), eta baita Batzordeak idatziz edo ahoz erantzuteko duen betebeharra. Horretaz gain, EB-ko hitzarmenek eta erregelamendu eta zuzentzauek kontsulta eta informazio betebeharrak ugari egozten dizkiote Batzordeari. Esan daiteke, Hitzarmenek Parlamentuari informazioa eskatzeko eskubidea erabiltzera bultzatzen dutela. Hauetaz gain, kontrol tresnen artean, ikerketa batzordeak daude,

Batasuneko Legediaren aplikazioan egon daitezkeen arau-urratzeak eta administrazio jarduera okerrak ikertzeko sortzen direnak (EBFBT 226. artikulua). Horiekin loturik, parlamentu-batzorde bereziak daude. Bi batzorde motek, behin-behineko izaera dute, hala ere batzorde bereziak ez dira arau-urratze edo administrazio jarduera okerretara mugatzen, izan ere haien fokua edozein gai edo auzietan jarri daiteke.

II.1.2 GARDENTASUNA ESPAINIAKO ESTATUAN: LEGEA, ERREGELAMENDUAK ETA EPAIAK.

Publizitate printzipioa Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoaren oinarrietako bat da. Honen isla, Espainiako ordenamendu juridikoan aurki dezakegu era zabalean, Espainiako Konstituziotik Kongresuko barne-erregelamenduetara. Aztertzen hasteko, Espainiako lege gorenetik hasiko gara, hau da, Espainiako 1978ko Konstituziotik. Hainbat artikuluk aitortzen dute printzipio hau:

- EK-ko 9.3 artikulua zera dio “Konstituzioak bermatzen ditu (...) arauak publiko egitea” Hau oinarrizko betekizuna da Zuzenbidean funtsezkoa den segurtasun juridikoa bermatzeko. Honekin EK-ko 91. artikulua lotu behar da, izan ere honen bitartez legeen berehalako argitaratzea ondorioztatzen da.
- EK-ko 81 artikulua, honakoa esaten du: Izaera orokorrarekin “Kameretako osoko bilkurak publikoak dira”, honek parlamentuko publizitate printzipioa argi eta garbi aitortzen du.
- EK-ko 105 b) artikulua dio Legeak arautuko duela herritarren sarbidea artxibo eta erregistroetara.
- EK-ko 120. artikulua zera aitortzen du Printzipio orokor bezala “jarduketa judizialak publikoak izango dira (...) prozedura nagusiki ahozkoa izango da, batez ere auzi kriminaletan (...) epaiak arrazoituak izango dira beti, eta entzunaldi publikoan emango dira.

Publizitate eta gardentasun Konstituzio printzipioak, beraz 3 botereetan dute isla, Zuzenbidezko Estatuaren egiturazko eskakizuna baita, herritarren eskubide eta askatasunen erabilera onenaren berme gisa. Hala ere, horrek ez du esan nahi Estatuak ez duenik botererik zenbait arlo edo gai herritarren ezagutzatik kanpo uzteko. Izan ere,

zenbait gai bere natura, ezaugarri edo izaerarengatik euren edukia sekretu edo erreserbatu gisa izendatuak baitira. Hori bai, soilik izan daiteke organo parlamentario batek edo diputatu batek egindako informazio-eskaera ukatua, Konstituzio ondasun edo eskubideen defentsaren beharrezkotasunean oinarrituta (Cano Bueso, 1997). Horrek, ez du esan nahi Gobernu edo errekeritutako Administrazioa ez denik saiatu behar kontziliazio sistema bat edo adostasun sistema bat sortzen, diputatuen informazio eskubideak ez daitezen urratu.

II.1.2.1 Gardentasunari buruzko 19/2013 Legea

Gardentasuna arautzen duten arauak, dagokienez, lehenengo eta behin 9/2013 Legea daukagu, gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoa (GIPSGOL edo Gardentasun Legea). Lege honek xedatutakoak paradoxa bat sortzen du. Haren 3. kapituluak (Informazio publikorako sarbide eskubidea) pertsona guztiei aitortzen die informazio publikorako sarbide eskubidea, EKko 105.b) artikuluan xedatutakoa oinarri. Bestalde, muga garrantzitsuak ezartzen dizkio eskubide horri. Batzuk besteak baino justifikatuago daude. Esaterako, datu pertsonalak (Gardentasun legea 15. artikulua), sekretu profesionala eta jabetza intelektuala defendatzea zentzuzkoa dirudi. Baita ere SOLek aipatzen dituen segurtasun nazionala eta nazioaren defentsa kolokan jar ditzaketen datuak. Gardentasun Legea eta SOLekin batera egindako interpretazio sistematikoa eginez, suposatzen da kontu horiek gutxienez erreserbatu bezala klasifikatu beharko liritezkeela. Gardentasun Legeak, ordea, ez du horri buruz ezer esaten, ez du SOL aipatzen, eta ematen du Sekretu Ofizialen Legea ordenamendu juridikotik kanpo uzten duela ustekabeen.

Esan bezala, gardentasuna arautzen duen Lege nagusia 9/2013 Legea da, gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoa (GIPSGOL). Legeak berak ezartzen duen bezala, Legearen helburu nagusia jardun publikoan gardentasuna areagotu eta hobetzea da, bai eta informazio publikorako sarbidea aitortzea eta bermatzea eta arduradun publikoei gobernantza oneko obligazioak ezartzea, baita ez-betetzeak dakartzaten ondorio juridikoak ezartzea ere.

Lege honen I. tituluak jardun publikoaren gardentasuna bi kapituluetan arautzen da: publizitate aktiboa eta informazio publikorako sarbide eskubidea. Horretaz gain,

zerbitzu publikoak ematen dituzten subjektuei erreferentzia egiten die, Lege hau bete behar dutenak. II. tituluak Gobernu Onaren inguruan dihardu, eta hirugarrenak Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren (Consejo de Transparencia y Buen Gobierno) inguruan.

Gardentasun Legearen xedapenak Estatuko Administrazio Orokorrari, Autonomia Erkidegoei eta Toki-Administrazioei; Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaile eta zerbitzu komunei; organismo autonomoei, Estatuko Agentziei eta sektoreren baten ikuskaritza eta arauketa egiten duten zuzenbide publikoko enpresa-erakundeei; eta administrazio publikoei atxikita dauden eta berezko nortasun juridikoa duten Zuzenbide Publikoko erakundeei zaie aplikagarri. Bestalde, Administrazio Zuzenbidea oinarri duten jardueretan Legeak xedatutako betetzera behartuta daude honako entitate hauek: Zuzenbide Publikoko korporazioak, Errege-etxea, Diputatuen Kongresua, Senatua, Konstituzio Auzitegia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Espainiako Bankua, Estatu-Kontseilua, Herriaren Defendatzailea, Kontu-Auzitegia, Kontseilu ekonomiko-soziala eta Autonomia Erkidegoetako instituzio analogoak (Arartekoa, kasu).

Baita ere honakoak: Merkataritza Sozietateak eta fundazio publikoak; Aurreko parrafoko Administrazio, erakunde eta entitateek sortutako Elkarteak; alderdi politikoak, erakunde sindikal eta enpresarialak, bai eta diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten entitate pribatuak. Azkenik, Administrazioari zerbitzu publikoak eskaintzen dizkieten edo administrazio-ahala egiten duten pertsona fisiko zein juridikoek ere Administrazioari, edo honi atxekitako erakunde edo entitateei Legean aipatutako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa ematera behartuta daude.

Lanean zehar jorratutako gaian garrantzi handienetarikoa duen artikulua Gardentasun Legeko 14. artikulua da. Izan ere, artikulua honek informazio publikorako sarbideari mugak ezartzen dizkio. Artikulu honek xedatzen du informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu edo murriz daitekeela hainbat arlori eragiten dionean, zehazki arlo hauei: segurtasun nazionala (14.1.a); defentsa (14.1.b); nazioarteko harremanak (14.1.c), segurtasun publikoa (14.1.d); arau-hauste penalak, administratiboak edo diziplinazkoak prebenitzea, ikertzea eta zehaztea (14.1.e); prozesu judizialetan aldean arteko berdintasuna eta benetako babes judiziala (14.1.f); zaintzako, ikuskapeneko eta kontrolko administrazio-eginkizunak (14.1.g); interes ekonomiko eta komertzialak

(14.1.h); politika ekonomikoa eta moneta-politika (14.1.i); sekretu profesionala eta jabetza intelektual eta industrialak (14.1.j); erabakiak hartzeko prozesuetan konfidentzialtasuna edo sekretua bermatzea (14.1.k); eta ingurugiroaren babesa (14.1.l).

Ikusi daitekenez, arlo ugari mugagarri ugari dago eta izaera anitzekoak. Hori bai, gai hauetarako sarbidea mugatzeari buruz 14.2 artikulua “mugen aplikazioa justifikatua eta proportzionala” izan behar du, eta “interes publiko eta pribatuen arteko konkurrentzia” aztertu beharra dago. Sendin Mateosen ustez GIPSGOLEn paradoxa handi bat sortzen du: Sekretu Ofizialen Legeak xedatzen ez zituen arlo batzuk mugatu egiten ditu, hau da informazio publikorako sarbidea gehiago mugatzen du erreserba edo sekretuen mekanismoak erabili gabe (2020, 256). Hau are deigarriagoa da kontuan hartzen badugu Lege honek administrazioei “publizitate aktiboko” betebeharrak ezartzen dizkiola.

14. artikulua aipatutako arlo guzti hauek euren arauak propioa garatu behar dute. Hala ere, Cotino Huesok azaldu bezala “informazio sarbiderako oinarriko eskubideen arauak edo oso urria da edo ez da existitzen” (2021, 36). Bere aburuz, “erregulazio falta hau, legegileak mugak ez arautzeko daukan borondatek dator, hortaz gutxitan jo daiteke 19/2013 Legeko 14. artikulua aipatzen dituen ondasun legal eta konstituzionaletara mugaketa bat justifikatzeko” (Cotino-Hueso, 2021)

II.1.2.2 Estatuko Sekretu Ofizialen Legea

Gardentasun Legeaz gain, Espainiako Ordenamendu Juridikoko gardentasun arloan garrantzia handia duen beste lege bat Estatuko Sekretu Ofizialen 9/1968 Legea (SOL) da. Lege honek gai batzuk zein besteak sekretu edo erreserbatu sailkatzen ditu, hauek Estatuaren funtsezko interesetarako edo konstituzio ordena, nazioaren defentsa edo kanpo bakerako izan dezaketen eraginaren arabera.

SOL aztertu ostean Espainiako Estatu sekretuen arauketaren arazo nagusia hauexek dela nabarmen geratzen da: Gaien klasifikazio eta desklasifikazioaren kontrola zeharo arazotsua da, eta gaiak sekretu izatea betikotzen du, ez baitu inolako eperik zehazten hauek desklasifikatzeko. Bestetik desklasifikatzeko eskumena gaiak klasifikatzen dituzten eskuetan geratzen da. Arlo honetan, Gardentasun Legeak, gai hau konpondu ordez arazoa sakonago egin du. Izan ere, oztopo gehigarriak ezartzen ditu eta SOLen arauak ailegatzen ez zen eremuetara iristen dira. Honek, praktikan, iritzi publikoari

ezkutatuta gera daitezkeen gaien kopuruaren areagotzea dakar (Sendín Mateos, 2020).

Estatu demokratikoen ezaugarri nagusietako bat Estatuaren jarduna edo boterea gauzaten dutenen jarduna “begi-bistakoa” izatea da. Hau da, jardun hori iritzi publikoaren kontrolaren eta jakintzaren menpe egotea. Bobbioren arabera “begi-bistakoa” den Estatu horren atzean “ikusezina” den Estatua eta boterea ere badago, Estatuak beti dituelako sekretu mantendu nahi dituen kontuak (1985, 20). Autore honen arabera demokrazia Estatu “ikusezin” horren jarduna ikusgarri egiteko jaio egin zen, “maskararik gabeko boterea” sortzeko hain zuzen ere (Bobbio, 1986). Botere honek oinarri izan behar ditu publizitatea eta gardentasuna, autoritarismotik aldendu eta estatu autokratikoak alde batera utziz. Hala ere, Bobbiok berak aitortu egiten du demokraziaren ideala boterearen begi-bistako jarduna den arren, salbuespenezko egoera batzuetan sekretuek justifikazioa izan dezaketela, “Publizitatea araua da, eta sekretua salbuespena, beti ere araua gutxitu ezin dezakeen salbuespena, izan ere sekretua justifikatuta egon daiteke soilik denborak mugatzen badu” (Bobbio, 1986).

Espainiar Estatuko kasura bueltatuz, Estatu Sekretuak kontrolatzeko zailak dira, eta betikotzera jotzen dute. Hau da, behin Estatu Sekretu bezala zehaztuta betiko bihurtzen dira sekretu. Sendin Mateosen arabera Espainiar ordenamendu juridikoan kontu hau gaizki konponduta dago, gaur eguneko araudia zaharkituta baitago (2020, 249). Ez SOLek ez bere Erregelamenduak ez dute bat egiten gertuko herrialdeetan dauden erregulazioekin (ez eta Europar Batasunetik gardentasun arloan sustatu egiten denarekin), beraz ez dira homologagarriak.

SOL-en arauketari dagokionez, Legeak bi motatako gai sailkatuak ezberdintzen ditu: sekretuak eta erreserbatuak. Erregelamenduaren¹ 3.1 artikulua arabera sekretuak dira “beren berebiziko garrantziarengatik babes handiena behar dutenak, eta hauen ezagutarazteak Estatuaren segurtasuna arriskuan jar dezaketenak edo kalteak eragin diezaioketenak, bai eta Nazioaren funtsezko interesak kolokan jar ditzaketenak nazioaren defentsan, kanpo bakean edo konstituzio ordenean”. Erreserbatuetan (3.2 art.), berriz, sekretuen artean aipatzen ez diren gaiak, egintzak, dokumentuak, informazioak eta datuak ageri dira, garrantzi txikiagokoak, baina era berean haien ezagutarazteak Nazioaren

¹ Estatuko Sekretu Ofizialen Legeak, honen xedapenak jorratzeko Erregelamendu bat sortu zen otsailaren 20ko 242/1969 Dekretu bidez adostutakoa.

funtsezko interesak jar ditzakete Estatuaren segurtasun, nazio defentsa, kanpo bake edo konstituzio ordenaren arloan. Ikus daitekeen bezala bien artean ez da diferentzia askorik nabaritzen, bakoitzaren definizioa oso antzekoa baita. Sekretuek “aparteko garrantzia” dute, erreserbatuek, berriz, “garrantzi txikiagoa”. Ez dagoenez irizpiderik zeinen aurrean gauden jakiteko, bata edo bestea aukeratzea hautazko erabakia da. Erabakia hartzeko ardura, SOLen 4. artikulua araberan, Ministro Kontseiluaren Osoko Bilkurak eta Estatu Nagusiko Buruen Batzordeak daukate.

Eta ez dute soilik zerbait sekretua edo erreserbatua den erabakitzeko eskumena. Horretaz gain, organo hauei, gai klasifikatueta sarbidea izateko eskubidea baimentzeko eta ezeztatzeko eskumena ere ematen zaie (SOLen 7 eta 11.2 artikulua). Honek, bi ondorio ditu; batetik, oso zaila dela klasifikazio hori kontrolatzea, beraz organo erabakitzaileak arbitrarioki joka dezake; bestetik, praktikan ia ez dago diferentziarik arlo bat erreserbatu edo sekretu izendatzean, ezin baita haien informazioa eskuratu klasifikazioa ezeztatu edo baimena ematen ez den bitartean.

II.1.2.3 Herritarrak: Informazioa eskuratzeko eskaeraren prozedura

Herritarrek ez dute informazio publikoa eskuratzeko bide bakarra. Eskuratu nahi duten informazioaren araberan eta instituzioen eskumenaren araberan toki batera edo bestera jo beharko dute. Bai udalek, bai Foru Aldundiek, bai Autonomia Erkidegoek bai orokorrean Estatuak gardentasun atariak dituzte, Administrazio Publiko eta herritarren arteko zubi lana egiteko funtzioa dutenak. Esaterako, Bilboko udalak “Bilbao transparencia” izeneko ataria dauka; Bizkaiko Foru Aldundiak, “Bizkaia Gardena” ataria; Eusko Jaurlaritzak, “Gardena” ataria; eta Estatu osorako orokorra dena, “Estatuko Administrazio Orokorreko Gardentasun Ataria” (hemendik aurrera soilik Gardentasun Ataria deituko diot).

Lanean zehar jorratu den gaia kontuan hartuz, atzerritarren nazionalitatea gardentasunaren muga gisa, atari guzti hauetatik pisu handiena duena Estatuko Gardentasun Ataria da. Beraz, atari honetan informazioa lortzeko prozedura azaltzea ezinbestekoa deritzot. Dena dela, gaur egun horrelako atariak duten amankomuneko puntu bat zera da: Informazioa lortzeko bide ohikoena (eta Administrazio Publikoetatik bultzatuen) internet bidez egindako informazio eskariak dira. Gero eta digitalizatuago

dagoen Administrazio Publikoan ez du batere harritzen horrela izateak, eta bide batez esan beharra dago erosoagoa eta aproposagoa dela egungo garaiak kontuan hartuta.

Herritar orok (EK-ren 105.b artikulua oinarri) atari honetatik informazioa eskuratu nahi badu, lehenengo eta behin Gardentasun Atariaren webgunera jo beharko du. Bertan, “Informazioa eskuratu” (Solicitar información) gunera jo eta inprimaki bat bete beharko du. Hainbat datu zehaztu beharko ditu: izen-abizenak, NAN zenbakia, eskatzailearen helbidea... eta garrantzitsuena, zer informazio eskatzen den eta zer erakunde edo instituziori eskatzen zaion. Instituzio hauek Espainiako Gobernuako Ministerio guztiak, Errege-etxea, Datuak Babesteko Estatu Bulegoa eta Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritza soilik izan daitezke. Eskaera ez bada Gardentasun Atariaren webgunean egin nahi, beste toki batzuetara jo daiteke: eskaera zuzenduta dagoen Organismo edo Administrazioaren erregistro elektronikora, Correosen bulegoetara, Espainiak Atzerrian dituen ordezkari diplomatikoetara edota bulego kontsularretara eta erregistro gaiei buruzko asistentzia bulegoetara. Esandako inprimakia bete ondoren, bidali eta eskaera egintzat hartzen da. Eskaria jasotzen duen instituzio eskudunak hilabeteko epea du eskaera horri erantzuna emateko. Epe hau beste hilabete bat luzatu daiteke eskatutako informazioak aparteko zailtasuna badu, hori bai, hala kontsideratzen bada, eskatzaileari jakinarazi beharko zaio. Gardentasun Legeko 18. artikulua, ordea, hainbat kasu aurreikusten ditu eskaerak ez onartzeko:

- Prestatzeke edo argitaratzeke dagoen informazioa izatea.
- Laguntza izaera duten informazioari buruzkoak, hala nola, oharrak, zirriborroak, iritziak, laburpenak... barne-komunikazio txostenetan edo organo edo administrazio-erakundeetan jasotakoak.
- Aldez aurretik berregin behar den informazioari buruzkoa bada.
- Informazioa bere esku ez daukan administrazio edo organismo bati zuzenduta dagoenean.
- Argi eta garbi errepikakorak izatea edo Gardentasun Legearen gardentasun-helburuarekin justifikatu gabeko izaera edukitzea.

Informazioa ez bazaio zuzentzen informazio hori duen erakundeari, herritarrak erakunde egokiari bidaltzeko aukera izango du. Horretaz gain, herritarraren informazio eskaera ez bada argia, Gardentasun Atariak 10 eguneko epea emango dio informazio hori argitzeko, ez badu epe horretan argitzen, eskaera ezeztatua izango da. Behin eskaera

eginda, alegazioak egiteko eta dokumentazio gehigarria emateko aukera ere badago, 39/2015 Legeko 53.1.e) eta 76 artikulua oinarri hartuta. Honako hau Erregistro Elektronikoko Orokorretik egin daiteke.

Gehitu beharra dago, eskaerak onartzen ez dituzten, informazio partzialerako sarbidea ematen duten eta sarbidea onartzen duten baina hirugarren bat kontra agertu den ebazpenak arrazoituak izan behar direla. Hala ere, administrazio-isiltasun kasuetan, eskaera ez onartuzat hartuko da. Onartzen ez diren eskaeren aurrean herritarrek bi bide dituzte errekursoak jartzeko. Batetik, administrazioerako auzien jurisdikziora jo dezake. Bestetik, Gardentasun eta Gobernu onaren Kontseiluan Gardentasun Legeko 24. artikuluan aurreikusitako aukerako erreklamazio aurkeztu daiteke.

II.2. GALDERA PARLAMENTARIOA: FUNTZIOAK ETA BALIABIDEAK

Espainiako Konstituzioak aukera ematen die Gorteei Gobernuak eta Administrazioek egiten duten jardunaren berri izateko, hau da, eskumen unibertsala ematen die. Izan ere, Gorteei ez dute soilik eskumen legegilea, baizik eta Gobernuaren funtzioen kontrola egiteko eskubidea ere. Beraz, kontrol hau burutzeko jarri daitezkeen oztopoak Espainiako Konstituzioak (EK) eta Parlamentuaren jardunak ezar ditzake.

EK-ren 109. artikulua zera ezartzen du: *“Behar duen informazioa eta laguntza eskatu ahal izango diete Ganberak eta beren batzordeak, Ganberetako presidenteen bitartez, hala Gobernuari eta beraren departamentuei nola Estatuko eta autonomia-erkidegoetako edozein agintariri”* Hau da, Gorteetako kamereak eta batzordeak, hauen Presidenteen bitartez, Gobernuak eta bere sailengandik edo edozein Estatuko edo Autonomia Erkidegoetako autoritarendik informazioa eta laguntza jaso ahalko dute.

Bestalde, Espainiako Diputatuen Kongresuko Erregelamenduko 7. artikulua zera ezartzen du: *“Para el mejor cumplimiento de sus funciones parlamentarias, los Diputados, previo conocimiento del respectivo Grupo Parlamentario, tendrán la facultad de recabar de las Administraciones Públicas los datos, informes o documentos que obren en poder de éstas”*. Hau da, Diputatuak eskubidea dute Administrazio Publikoengandik beharrezko datu, txosten eta dokumentuak jasotzeko. Hala ere, eta aipatu bezala,

Gobernuak ukatu dezake Diputatuaren informazio-eskaera. Hori egiteko zuzenbidezko arrazoiak bi aldetatik etor daitezke.

1. Botere Legegileak sekretu-eginbearra ezartzen duen Lege bat adosten badu, hau da, autolimitazio bat ezartzen badu. Honen adibide dira Sekretu Ofizialen Legea (SOL) edo Gardentasunari, Informazio Publikorako Sarbideari eta Gobernu Onari buruzkoa Legea 9/2013 Legea (GIPSGOL).
2. Mugaketa edo limitazio hori Konstituzioak berak ezartzen badu. Adibidez, ohore, intimitate, familia eta bakoitzaren irudiaren babesa (EK 18.1); komunikazio sekretuak (EK 18.3); sekretu profesionala (EK 20.1) edo Estatuaren defentsa eta segurtasuna, delituen ikertzea edo pertsonen intimitatea kolokan jar dezaketen artxibo eta erregistroetara sartzeko debekua (EK 105.b art.)

Parlamentuko informazio eskubidea bi zentzutan proiektatu egiten da.

1. Parlamentu-organoaren alde (izan oso bilkura edo batzordea), Espainiako Konstituzioko (EK) 109, 110 eta 111 artikuluetan oinarrituta.
2. Diputatu individualaren alde, Diputatuaren Kongresuko Erregelamenduko 7. artikulua babesean, eta EK-ko 23.2 artikuluan bere estatusa integratuta.

Esan beharra dago Konstituzio Auzitegiaren aburuz, dokumentuak eskuratzeko ahalmena EK-ko 23.2 artikulua ezartzen duen oinarritzko eskubidearen baitan dagoela (KA-ren 161/1988 sententzia). Aldi berean, kontuan hartu behar da eskubide hori, lege-konfiguraziozko eskubidea dela, hau da legeek garatu beharrekoa. Hori kontuan harturik, Diputatuaren Kongresuko Erregelamendua zorrotzagoa izan zitekeen mugak ezartzerako momentuan, hala ere, Konstituzio Auzitegiak 32/1985 sententzian argi utzi zuen bezala, muga horiek «ezin dute edukirik gabe utzi Diputatuak aurrera eraman behar duten jarduna». Beraz, Diputatuaren dokumentuak eskuratzeko eskubideak ezin ditu eduki muga zorrotzegiak, baina bai nahikoak bestelako ondasun konstituzional batzuk defendatzeko.

Honen ondorio zuzena da, Gobernuak informazioa eskuratzeko baimena soilik mugatu edo ezeztatu diezaiokela parlamentari bati konstituzio eskubide edo ondasunen defentsan oinarrituta. Gainera, Gobernuak edo eskaera egiten zaion Administrazioak ezingo du eskatutako informazioa ukatu posible bada diputatuaren dokumentuak eskuratzeko eskubidea eta kaltetuak izan daitezkeen konstituzio eskubideak nolabait bateragarri egitea. Cano Buesoren hitzetan “behin kamarako mahaiak egiaztatzen

duenean informazio edo dokumentu konkretu batzuk beharrezkoak direla diputatu baten parlamentu jardunerako, dokumentu horietarako sarbidea soilik ukatu daiteke oso sendoak diren arrazoi juridiko-konstituzionaletan” (1997, 16).

Bai Diputatuen Kongresuan, bai Senatuan Parlamentariiek informazioa lortzeko hainbat bide dituzte. Haietatik ohikoenak interpelazioak eta galdera parlamentarioak dira. Diputatuen Kongresuko Erregelamenduko (DKE) IX. Tituluak arautzen ditu bi hauek. Galdera parlamentarioen artean bi ezberdindu ditzakegu: Idatzizkoak eta ahozkoak. Era berean, ahozkoen artean bi mota dago, osoko bilkuran erantzuten direnak eta batzordeetan erantzuten direnak. Galdera egiten duen parlamentariak erabaki dezake zer motatako galdera egin, baina beti ere Ganberako Mahaian egin beharko du DKE-ren 186.1 artikulua dioen bezala.

Parlamentariiek, ohiko bilkura asteetan galderak eta interpelazioak egiteko aukera dute, eta horretarako 2 ordu dituzte (DKE 191. art). Ahozko galderei dagokionez, oso erabilgarriak dira erantzun azkarrak jasotzeko. Gainera, denbora laburrean galdera asko egitea errazten dute. Horrek, hala ere, galdera oso zehatza egitea suposatzen du (DKE 188.1 art) eta denbora tarte laburra, bai galdera egiten duenarentzat, bai erantzuten duenarentzat. Beraz, ez dira hain egokiak oso gai mardul eta sakonak landu behar direnean. Ahozko galderen zehaztasunari dagokionez zera dio DKEn 188.1 artikulua: *“Idazkiak galdera labur eta zehatz bakarra jaso beharko du, gai, egoera edo informazio bati buruz galdetzen duena, Gobernuak hartutako edo hartuko dituen neurrien inguruan galdetzen duena edo Gobernuak Kongresuari dokumenturik helaraziko dion galdetzen duena”*.

Galdera hauek egiteko epeari dagokionez, bai eta Ganberako Mahaiaren kalifikazioari dagokionez, ohiko bilkura egin aurreko ostegunean tramitatuta egon beharko dira, izan ere ohiko bilkura asteazkenetan izaten da. Gainera, soilik hartuko dira kontuan Diputatuen Kongresuko Erregistroan jasota daudenak. Hala ere bi salbuespen dago: Ministroen Kontseiluak hartutako erabakien aurrean aurrez aurkeztutako galderak alda daitezke, eta Talde Parlamentarioek eska dezakete astelehenetan Diputatuek egindako galderaren bat aldatzea, azken orduko edo larrialdiko gaien inguruan badira, eta ezin izan badira ohiko epeetan aldatu. Gehitu beharra dago, Gobernuak erabakitzen duela nork

erantzungo dion galdera bakoitzari. Ahozko galderei Ministroez gain, Estatuko idazkari eta idazkariordeek ere erantzun ahal diete.

Idatzizko galderak, ordea, dira erabiliak. Gobernuak 20 eguneko epea du galdera hauei erantzuteko Gorte Orokorren Buletin Ofizialean argitaratzen direnetik. Epea betetzen ez bada, Diputatuak eska dezake batzorde eskudunaren hurrengo bilkuraren gaitzerrendan sartzeko (DKE 190. art). Galdera hauek ez dute denbora eperik, beraz gaitzerrenda sakonagoak lantzea eta galdera luzeagoak egitea ahalbidetzen dute.

III. KASU-ANALISIA

Informazioa eskuratzeko eskubidea edo informazio sarbiderako eskubideari buruz ari garenean, herritar arruntak eta parlamentariak bereizi behar ditugu. Izan ere, eskubidea denontzako aitortua dagoen arren, kasu batean zein bestean daukan irismena ez da berdina. Parlamentarien kasuan, geroago azalduko den bezala, jardun parlamentarioarekin lotuta dago, hau da, Konstituzioak bereziki babesten duen jardunarekin. Horren ondorioz, ikerketa bi dimentsio ezberdinetan banatuko da: herritarren informaziorako sarbidea eta parlamentu-kontrola.

III.1 Gardentasun atarian eginiko informazio-eskaera. 001-040538 eta 001-040934 txostenen analisia

Herritarrok zenbait tresna ditugu Administrazio Publikoen jarduna kontrolatzeko eta haiengandik informazioa jasotzeko. Informazio eskuratzeko hau indibidualki zein kolektiboki egin daiteke, adibidez elkarte baten bidez edo gobernu kanpoko erakunde baten bidez. Atzerriartean gaitan asko dira Espainiako Estatuan jarduten duten erakundeak, esaterako giza eskubideen alde edo gaitan gaitan gardentasuna eta iritzi publikoa sustatzeko asmoz. Informazio edo dokumentazio hau eskuratzeko bide ohikoenetarikoa Gardentasun Atarira jotzea da.

Estatuko Administrazio Orokorreko Gardentasun Ataria edo soilik Gardentasun Ataria, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren menpe dagoen web ataria da. Bertan hainbat arlori buruzko informazioa argitaratu egiten da: Estatuko Administrazio Orokorreko buruzkoa, Gizarte Segurantzaren zerbitzu komun eta entitate

kudeatzaileen ingurukoa, Estatuko Agentziei buruzkoa, izaera juridiko propioa duten Zuzendaritza Publikoko entitateei buruzkoa etab. Gure kasuan Estatuko Administrazio Orokorrari buruzko informazioa zaigu interesgarri, izan ere, honek bere baitan hartzen ditu Barne antolakuntza (ministerioak eta zerbitzu komunak), Lurralde Antolakuntza eta Estatuaren Administrazio Orokorra atzerrian.

2020ko otsailaren 18an Espainiako Barne Ministerioaren parte den Polizia Zuzendaritza Orokorrean, Estatuko Gardentasun Ataritik egindako bi informazio eskari heldu ziren. Bigarren eskarian lehenengoan egindako eskaera handitu egiten zen. Bi hauek, etorkin irregularren deportazioen inguruko informazioa eskatzen zuten, zehazki 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020 urtekoak. Azken eskarian honako galdera hauek jasotzen ziren:

- *Zenbat aberriratze hegaldi antolatu ziren urte horietako bakoitzean? Sailkatu jatorrizko eta helmugako aireportuak (eskalak kontuan harturik). Zenbat pertsona, nazionalitateka sailkatu, izan dira aberriratuak hegaldi horietako bakoitzean?*
- *Zein izan da operatibo horietako bakoitzaren kostua? Nork ordaindu ditu operatibo horiek FRONTEXek edo Estatu Espainiarrak? Zein da aberriratze bakoitzaren bataz besteko kostua?*
- *Zer zantzuren arabera egiaztatu edo uste da pertsona horiek Mauritanian ibili direla? Nork egiaztatzen du Mauritania bidez aberriratu diren pertsonen nazionalitatea?*

Galdera hauen erantzuna ez zen berehalakoa izan. COVID-19ren krisia zela eta, 463/2020 Errege Dekretuak informazio publikorako sarbiderako epeak eten egin zituen. Hori zela eta, 2020ko uztailaren 10era arte ez zen erantzunik eman. Erantzuna jasotzen den ofizioa Polizia Nazionalak egindako txostenean oinarritzen zen, eta ofizioaren egileak, hau da, Zuzendaritza Zentroak, eskatutako informaziorako sarbide partziala eman zuen, 19/2013 Legean, hau da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko (GIPSGOL) Legearen 16. artikuluan oinarrituta. Artikulu horrek zera esaten du: *“En los casos en que la aplicación de alguno de los límites previstos en el artículo 14 no afecte a la totalidad de la información, se concederá el acceso parcial previa omisión de la información afectada por el límite salvo que de ello resulte una información distorsionada o que carezca de sentido. En este caso, deberá*

indicarse al solicitante que parte de la información ha sido omitida.” Hau da, 14. artikulua ezarritako mugek ez balute informazioaren osotasunean eragiten, informazio eskatzaileari informazio partziala emango zaio, esanez zer informazio ez den erraztu.

Ofizioak ez du jasotzen ez aberriratutako pertsonen nazionalitatea, ez hegaldien helmuga, izan ere, Zuzendaritza Orokorraren ustetan, datu hauek ematea Espainia eta kaltetutako herrialdeen arteko kanpo harremanetan arazoak sor litzake. Era berean, honek Enbaxada eta Kotsulatuetan herritar etorkin irregularrak dokumentatzea zailduko luke. Horrek, gainera, kanporaketa berriak gauzatzea oztopatuko luke. Guzti hau oinarrizko Zuzendaritza Orokorrak GIPSGOLren 14.1c) artikulua hartzen du kontuan, zera dioena: *“Informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahalko da, inormazio horretara sarbide izateak arlo hauei kalte egiten dienean: c) nazioarteko harremanak”*

Argudiaketa honek, hainbat eta hainbat ofizioetan jaso, ez du soilik Polizia Nazionalaren oniritzia, baizik eta Gardentasun Kontseiluarena ere. Azken honen aburuz, kanporatzen prozeduren inguruabarrek zerikusi handia dute aberriratzen diren etorkinen herrialdeen irudi publikoarekin. Hortaz, honek eragina izan dezake Espainiako eta herrialde horietako autoritateen arteko harremanetan. Bestalde, Espainiar Estatuak “sufritzen duen migrazio presioa” aipatu egiten dute, Europar Batasunaren kanpo muga gisa. Espainiak immigrazioaren ikuskaritza eta kontrol lanak egiten dituen heinean, etorkin irregularren jatorrizko herrialdeekin kolaborazioa behar du, ez soilik kanporatze-txostenak tramitatzeko, baizik eta gizakien salerosketa galarazteko neurriak hartzeko. Argudio hauek kontuan harturik, Gardentasun Kontseiluak dio ez dagoela inolako goi-interesik (interés superior) herritarrak eskatutako informazio guztia helarazteko. Izan ere, informazio eskaeraren oinarrizko elementua (aberriratutako etorkinen jatorrizko herrialdea jakitea) da Espainiaren kanpo-harremanak kinka larrian jarriko lituzkeena.

Lehenago aipatu bezala, herritar orok dauka informazio publikorako sarbiderako eskubidea, hala aitortzen baitu EK-ko 105.b) artikulua. Informazio publiko gisa zera ulertzen da: Administrazio Publikoak osatzen dituzten subjektuek dauzkaten edo haien jardunean sortu edo bereganatu dituzten eduki edo dokumentuak, haien formatu edo euskarria edozein izanda ere. Lanean zehar zenbaitetan adierazi den moduan, informazio hori eskuratzeko mugak ezartzen ditu Gardentasun Legeak, eta zehazki jada ezaguna dugun 14. artikulua. Artikulu honen behin eta berriro egin den erabilpenetik zera ondorioztatzen da: Atzerritartasuna edo atzerritarren nazionalitatea gardentasunaren

muga da, informazioa eskuratzeko oztopo gisa erabiltzen baita. Eta ez da oztopo soila, baizik eta arbitrarioki eta nahierara erabilitako muga baizik. Are gehiago, arlo honetan Gobernuak eta organo eskudunek aurrera eramandako jardunak “de facto” atzerritarren nazionalitatea sekretu bihurtu dute, ez dagoenean inolako xedapenik hala zehazten duenik. Sekretu bihurtze hori 14. artikulua horretan du oinarria.

Adibideak ugariak dira, esaterako oraintsu azaldutako kasua (001-040538 eta 001-040934 txostenak). Honekin loturik, aipagarria da Miguel Angel Blanes Climent juristak Espainiak Marokori emandako 32 milioiko laguntzaren inguruan egindako iruzkina. Aurretik aipatu bezala, “Access info Europe” elkarteak egintza honen inguruan informazioa eskatu zion Espainiako Barne Ministerioari. Honek, ordea, GIPSGOLren 14.1c) artikulua oinarri eskaera hori ezeztatu zuen, segurtasun publikoarentzako eta nazioarteko harremanentzako kaltegarria izan zitekeela argudiatuz. Azken muga honen inguruan zera esan zuen: “(...) Maroko garrantzi estrategiko handiko herrialdea da, izan ere Espainiara doazen etorkin irregularren jatorrizko herria da, baita beste herrialde batzuen igarotze kokalekua ere. Bi Estatuen artean daukagun elkarrenganako konfiantza urratua gera liteke Marokori emandako laguntzen inguruko informazioa zabaltzen bada, batez ere Marokoko Segurtasun Indarrekin daukagun kooperazio operatiboaren ingurukoa bada. Espainiako nazioarteko harremanentzako kalte handia ekarriko luke(...)”.

Horrez gain, zera esan zuen Ministerioak segurtasun publikoaren inguruan: “(...) Eskatutako informazioak Maroko eta Espainiako Segurtasun Indarren kideen kopurua, hedatze operatiboa eta antolatutako krimenaren aurkako zabalduko bitartekoak jasotzen ditu. Nazioarteko polizia-kooperazioaren inguruko informazioa da, zeinaren hedatzeak bi herrialdeen segurtasun politiken eraginkortasuna oztopatuko lukeen. Are gehiago trafiko-sare kriminalak, pertsonen salerosketa eta legez kanpoko immigrazioaz arduratzen den arlo batean. Honetan jarduten duten gaizkileak Segurtasun Indarren jardura saihesten saiatzen dira behin eta berriro, legez kanpoko trafiko-sare berriak irekiz (...)”.

Argudio hauek ez zaizkigu berriak. Oraintxu azaldutako kasu praktikoan (001-040538 eta 001-040934 txostenak) Polizia Zuzendaritza Orokorrak (Barne Ministerioaren parte dena) argudio berdinak azaldu zituen, berriro ere 14.1c) artikulua

oinarri. Hauei aurre egiteko “Access Info Europe” elkarteak hiru argudio nagusi plazaratu zituen. Batetik, informazio horretara sarbidea izateak ez zuela inolako kalterik eragiten segurtasun publikoari ezta legez kanpoko immigrazioari, izan ere eskatutako informazioa urtebeteko baino gehiagoko antzinatasuna zuten gertakari batzuei buruzkoa zen. Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak (GGOK) berak azaroaren 26ko 620/2019 ebazpenean, antzeko kasu baten harira, honakoa adierazi zuen: *“Ministerioaren argudiaketak ez du argitzen zenbaterainoko kaltea eragin diezaiokeen segurtasunari informazio horretara sartzeak. Izan ere, jada gertatutako egintza baten inguruko txostena da, gertakarien ikuskera objektiboa eskaintzen duena. Gainera, gertakaritik denbora dezente eta nahikoa igaro da.”*. Irizpide hau aplikagarri zaigu, baita ere, egoera irregularrean zeuden deportatutako etorkinen helmugari buruzko informazioa eskatzen denean. Zer kalte eragin dezake segurtasunean 2017, 2018 edota 2019ko datuak eskatzeak? Bada, Barne Ministerioak ez du erantzun argirik ematen, eta nabaria da GGOKak ebazpen honetan mahaiganeratutako irizpideari muzin egiten diola, bere erabakiak haren interesaren arabera hartuz. Blanes Climent-ek egoki seinalatzen duen moduan eta 39/2015 Legearen 35.1.c oinarrituta: Arrazoitu egin behar dira aurreko jarduketetan erabilitako irizpidearekin bat ez datozen egintzak. GGOK-k eta Barne Ministerioak ez dituzte irizpide aldaketa hauek azaltzen.

Bigarrenik, esan beharra dago “Access Info Europe” elkartearen kasuan ez zitzaiola inolako informaziorik helarazi. Gardentasunaren 19/2013 Legearen 16. artikulua informazio partzialerako eskubidea aitortzen du, hau da, eskatu den informaziotik legeak mugatzen ez dituen informazioetara sarbidea edukitzeko eskubidea. Polizia Zuzendaritza Orokorraren 001-040538 eta 001-040934 txostenetan, ordea, eskubide hori aitortua izan zen, adibidez deportatuen kopurua jakinaraziz. Berrito ere, irizpide kontraesankorrak ikus ditzakegu.

Azkenik, kontu arazotsuenetako bat daukagu. Maroko eta Espainiaren arteko Polizia operazioaren inguruan zera esan zuen GGOK-k: *“Ez da denboran mugatua dagoen operazio zehatza, baizik eta herrialde eta autoritateen arteko kooperazioan oinarrituta dagoen politikaren ezartzea, garrantzi handikoa dena. Honen eraginkortasuna kolokan jar daiteke eskatutako informazioa eskura jartzen bada”*. Blanes Climenten hitzetan «Zabalegia den interpretazio hau mantenduz gero, ezinezkoa da Espainiak edozein munduko estatu edo nazioarteko antolakunderekin dituen harremani buruzko informazio

publikora sarbidea izatea». Beste ere batera esanda, interpretazio hau mantentzeak arlo honetan dauden mugak betikotzea dakar. Gai hauek sekretu edo erreserbatu bezala tratatzen dira, baina 1968ko Sekretu Ofizialen Legeak ezartzen dituen xedapenak erabili gabe. Beraz, irizpidea Legearen gainetik ezartzen da. GGOK-k “nazioarteko harremanak” denboran definitu gabeko muga absolutu bezala tratatzen ditu, eta nazioarteko harreman horien barnean kokatzen da etorkinen nazionalitatea.

III.2 Diputatuen Kongresuko Mahaiari egindako galdera parlamentarioa: Diputatuen Kongresuko 73924 galdera, 2020ko azaroaren 26koa

2020ko azaroaren 25ean, Jon Iñarritu Garcia Euskal Herria Bildu talde parlamentarioko kideak, Diputatuen Kongresuko mahaiari zenbait galdera luzatu zizkion. Honen arrazoia, Gran Canariako Arguegin herriko portuko morruan (espigon) jazotakoa argitzea zen. Izan ere, 2020ko azaroaren 20an, Barne Ministeritzak Iñarritu jaunari portu horretara sartzeari debekatu zion, sartzeko eskaera 48 ordu lehenago egin arren. Morruan 1500 etorkin zeuden.

Sartzeko eskaera ezeztatzeko hainbat arrazoi kontraesankor eman zituen Ministeritzak. Lehenengo eta behin, esan zuen sartzeari debekatzeko erabakia Gobernu Ordezkaritzak eman zuela, baina organo honek informazio hori ezeztatu zuen Barne Ministeritzak erabaki zuela adieraziz. Bestetik, esan zen osasun egoerak ez zuela inolako bisitarik onartzen, hala ere, Iñarritu jauna bertan agertu aurretik, Parlamentuko eta Gobernu Kanpoko Erakundeetako kide ugari bertaratuta ziren morrura egoera berdintsua zela. Hori gutxi balitz, Ministeritzak Iñarritu jauna hurreratu zen egunean Jarraigo Judizial bat zegoela argudiatu zuen, baina parlamentarioa heltzean jada bukatuta zegoen. Horren aurrean, EH Bilduko kideak beste edozein momentutan buelta zitekeela erantzun zion Ministeritzari, baina honek esan zion, osasun langileak nekatuta eta larri zeudela. Debeku honetaz gain, ez zitzaion Iñarritu jaunari etorkinak hartatzeko Barranco Seco zentroan sartzen utzi, ez eta ABZan (Atzerritarrak Barneratzeko Zentroa). Parlamentu kidearen ustez, jazotakoa kontrol parlamentarioaren kontrako eraso larria izan zen, izan ere, etorkinak hartatzeko, atxilotzeko eta erretentzeko zentroetara sarbidea ukatzeak gardentasun falta nabaria erakusten du.

Orain arte azaldutakoaren inguruan erantzunak aurkitzeko honako galdera hauek zuzendu zizkion Jon Iñarritik:

1. Zein da azaroaren 20an Arguinegineko portura bisita egitea ezeztatzeko arrazoia? Eta Barranco Secoko zentrora eta ABZra sartzeko galarazteko arrazoia?
2. Nork erabaki zuen bisitak galaraztea?
3. Zergatik ez zitzaidan idatziz erantzun bisita egiteko baimena idatziz eskatzeko eskatu bazitzaidan?
4. Baimena ukatu duten arduradunei kargua kendu zaie?
5. Kontrol Parlamentarioa sabotatzea egintza arrunta deritzozu?
6. Bisita ekiditzeko argudio faltsu eta aitzakiak erabiltzea serioa deritzozu?
7. Zergatik utzi zaie beste parlamentari eta Gobernuz Kanpoko Elkarteko batzuei bisitak egiten eta niri ez?
8. Baimenak eman dira gerora?
9. Ezkutatu nahi zen Arguineginen ehunka pertsona zegoela atxilotuta 72 ordu baino gehiago igarota?
10. Ministeritzak zer gertaera nahi zuen ikustea eta egiaztatzea ekidin?

Gobernuak, galdera hauei, 2021eko otsailaren 4an erantzun zien. Erantzunean argudiatzen zuen pandemiak sortutako ezohiko egoera zela eta, hasierako momentuetan bisitatzeke baimenik ez ematea erabaki zuen. Horrela, zentroetako etorkinen eta bertan lan egin zuten langileen osasuna babesteko. Horrez gain, polizia funtzionarioen lana ez oztopatzea ere bilatzen zuten, instalazio horietan ahalik eta zerbitzu onena emateko. Gobernuak gaineratu zuen Arguineguinera egindako bisitak mugatuak izan zirela, zehazki 2 bisita soilik baimendu ziren: Herriaren Defendatzailearena eta Batzorde Judiziala. Lehenengoaren bisita kontrol parlamentarioaren funtzioaren baitan kokatu zuen Gobernuak, Herriaren Defendatzailea, Gorte Orokorretako Oinarrizko Eskubideen eta Askatasun Publikoen defentsarako Goi Komisionatua baita. Bigarren bisita, ordea, autoritate judizialek eskatutakoa izan zen, egoeraren kontrola egiteko asmoz. Erantzun hauek ikusita, somatu daiteke, Gobernuak ardura saihestu nahi izan zuela. Ez zion Iñarritu jaunak egindako galdera guztiei erantzun ez eta honek planteatutako arazoei benetako erantzunik eman. Kontrol-parlamentarioaren jarduna kolokan utzi zen, bai eta parlamentariak honen harira dituzten eskubideak.

Erantzun hau jaso arren, Jon Iñarritu jaunak EH Bildu talde parlamentarioaren izenean legez besteko proposamen bat luzatu zion Diputatuen Kongresuko Mahaiari. Legez besteko proposamen hau Barne Ministerioaren aurrean parlamentariak duten informazio eskubidearen ingurukoa zen, zehazki immigrazio eta nazioarteko babes arloan. 3 puntu nagusi azaltzen zituen bertan. Batetik, botere betearazlea kontrolatzeko jardun parlamentarioaren babesa, izan ere jardun honek bere baitan du Administrazio Publikoetatik informazioa jasotzea. Bigarrenik, sekretu edo klasifikatu bezala kontsideratuta ez dagoen informazioa eskuratzeko parlamentariaren eskubidea. Iñarritu jaunaren ustez “Gobernuak ezin die diputatuei informazioa ukatu era orokorrean segurtasun nazionalean eta harreman nazionaletan oinarrituta”. Argudio hauek, ez dira soilik erabiltzen herritar soilak informazioa eskuratu nahi dutenean, baita ere Parlamentariak eskuratu nahi dutenean. Hirugarrenik, Parlamentariak Barne Ministerioak aurrera eramandako “praktika opakoak” eta parlamentariaren kontrol jardunaren oztopatzea. Iñarritu jaunak salatu egiten du Gobernuak immigrazio kontrol eta nazioarteko babes arloan edukitako jarrera, behin eta berriro informazioa ukatuz eta ezkutatzuz.

Kasuan ikusi bezala eta legez besteko proposamenean salatu bezala, Gobernuak Parlamentariak informazioa ukatzeko ematen dituen argudioek herritar xumeei informazioa ukatzeko erabiltzen diren argudioen irizpide berdinak erabiltzen dituzte. Jada Gardentasun atariaren inguruan egindako kasu-analisan, argudiaketa hau “hankamotza” dela ikusi dugu. Hala ere, Parlamentariak informazio hau ukatzeak garrantzi handiagoa hartzen du, haien oinarritzko eskubide bat ukitzen duelako. Parlamentariak duten informazioa eskuratzeko eskubidea edo informazio sarbiderako eskubidea, ez da Espainiako Konstituzioak (EK) aitortutako eskubide “soil” bat. Jurisprudentziak argi uzten du eskubide hauek EK-ko 23.2 artikulua barnebiltzen dituela, hau da, Parlamentariaren informazioa eskuratzeko eskubidea oinarritzko eskubidea da, eta funtsezkoa da euren jarduna aurrera eraman ahal izateko.

Auzitegi Gorenak, esaterako, zera adierazi zuen: «EK-ko 23.2 artikuluko eskubideak Administrazio publikoei informazioa eskatzeko eta haiengandik informazioa eskuratzeko eskubideak aitortzen ditu. Eskubide hau, parlamentariaren jarduna aurrera eramateko funtzioen barne dago, eta haien artean Gobernuaren jardun politikoa kontrolatzeko eskubidea dago» (Auzitegi Gorena, Administrazioarekiko Auzien Sala, 7a

sektorea, 2013ko otsailaren 25a). Are gehiago, parlamentuaren erregelamenduetan aitortutako eskubide indibiduala da, parlamentariaren funtzioei lotua eta horrexegatik EK-ko 23.2 artikuluan txertatuta dagoena. Konstituzio Auzitegiak adierazi bezala: “Konstituzioko 23.2 artikuluan aitortutako oinarrizko eskubidea lege-konfigurazioko eskubidea da, eta Legeari dagokio – honen barruan Parlamentuko Erregelamenduak daude – kargu eta funtzio publiko bakoitzari dagozkion ahalmen eta eskubideak ordenatzea. Eskubide eta ahalmen hauek, kargu bakoitzaren status propioaren parte dira, beraz EK-ko 23. artikulua oinarriean defendatu ahal izango dituzte hauek modu ez-zilegian mugatuak direnean”. KA-ko 32/2017 epaiak interpretazio hau berretsi egin du.

Hala, ere lan honetan zehar askotan aipatu bezala eskubide honek mugak ditu, eta muga hauek Konstituzioak, oinarrizko eskubideek eta parlamentuko erregelamenduek ezaugarritzen dituzte. Hori horrela izanik ere, parlamentuko erregelamenduek ez dituzte zehatz-mehatz zehazten informazio sarbiderako mugak. Esaterako, Diputatuen Kongresuko Erregelamenduko 7. artikulua “zuzenbidean oinarritutako arrazoiak” aipatzen ditu, edo eta eskatutako informazioek “oinarrizko eskubideen funtsezko edukian ez eragitea”. Zer adierazi nahi dut guzti honekin? Bada eskubide honek babes berezia behar duela, oinarrizko eskubidea baita. Beraz, hau mugatzeko egindako egintzek arrazoi sakon eta oinarrituak behar dituzte. Errealitatean, ordea, Gobernutik eta organo eskudunenetatik ematen diren erantzunak erabat lausoak dira, eta argudioak ez dira bat ere zehatzak, are gehiago, oinarrizko eskubide batek daukan dimentsioa kontuan hartuta.

Auzitegi Gorenaren arabera, GIPSGOL legea sortzetik hona, Parlamentariaren informazio publikorako sarbiderako eskubidea indartu egin da. Razquinen ustetan, Diputatuen informaziorako eskubidea ezin daiteke izan herritar xumeek dutena baino kaxkarragoa, jurisprudentziak aitortutako printzipio orokorra baita (2018, 49). Tesi honekin bat egiten du Auzitegi gorenak, izan ere sarbide hau ezingo da izan edozein herritarrek duena baino txikiagoa, are gehiago “ezinbesteko plus erantsia” izan beharko da (Auzitegi Gorenaren 4591/2015 sententzia, ekainaren 15koa). Honekin loturik, ulertu egiten da, Gobernuak ez lukeela informazioa ukatu beharko “nazioaren segurtasunaren babesa” edo “nazioarteko harremanen babesa” bezalako argudio lausoak erabiliz. Kontuan izanik AG-k aipatzen duen “plus” hori, ulertu egin behar da informazioa ez bada sekretua ez erreserbatua parlamentariaren esku utzi beharko litzatekeela.

Honekin bat, zera esaten du Razquinek GIPSGOLEko 14.1 artikulua aipatzen dituen estatu sekretu, defentsa eta harreman internazionalen inguruan: “Parlamentu Erregelamenduek zenbaitetan sekretu edo erreserbatu bezala kontsideratutako informazioa eskuratzeko batzorde bereziak sortu dituzte. Informazio honen barne daude segurtasun nazionala, defentsa edo segurtasun publikoa zentzu hertsian. Kasu hauetan diputatuen informazioa eskuratzeko eskubidea soilik artikulatu daiteke Sekretu Ofizialen Batzordeen bidez. Kontrako zentzuan (sensu contrario), honek esan nahi du informazio bat ez dagoenean sekretu bezala kalifikatuta, diputatuen hura eskuratzeko eskubidea dutela” (Razquin, 2018). Hortaz, nazioarteko harremanak edo segurtasun nazionala muga gisa erabiltzeko diputatuei eragiten dien lege baten espresuki eta esanbidez adierazita egon behar da. Parlamentuko informazioaren ukapen soil eta purua Konstituzio kontrakoa kontsideratu behar da, ez baitio Kamarari kontrol jarduna egiten ahalbidetzen.

Amaitzeko eta honekin loturik, aipatu beharra dago, immigrazioaren alorrean antzeko egoeran dauden beste herrialde batzuetan informazio hau argitaratu egiten dela. Horren adibide, Italia edo Grezia dira. Espainiarekin batera Mediterraneo itsasotik datozen etorkinen kopuru handiena jasotzen duten estatuak dira. Haien aburuz, ordea, informazio hau emateak ez ditu ez beste herrialdeekiko kanpo harremanak ez nazioaren segurtasuna kolokan jartzen.

IV. ONDORIOAK

Lanean zehar ikusi bezala, espainiar ordenamendu juridikoak gardentasunaren inguruan duen legediak eta administrazio eta botere publikoek egiten duten jarduerak zalantza ugari uzten ditu agerian. Are zalantza gehiago, orri hauetan zehar adierazi den moduan, kanpo harreman eta atzerritarren nazionalitatearen inguruan ari garenean. Ondorioa argia da, Administrazioak ez du garden jokatzen eta informazioa ezkutatzen du erabaki arbitrarioetan eta argudio lausoetan oinarrituta. Beste era batera esanda atzerritarren nazionalitatea kontrol parlamentarioaren eta gardentasunaren muga gisa erabiltzen da.

Guzti hau, Espainiar Estatuak arlo honetan duen defizit demokratikoaren isla argia da. Batetik, Europar Batasunean eta orokorrean nazioartean dauden arauekin konparatuta,

maila bat beherago dagoela ikus daiteke. Espainia Europako gainontzeko herrialdeekin erkatuz gero ikus dezakegu haren erabakiak zurrunagoak direla, gai berdinen inguruan aritu arren. Bigarrenik, Espainiak duen araudiak berak muga ugari ezartzen ditu, Gardentasun Legea eta Sekretu Ofizialen Legearen xedapenak aztertzean ikusi bezala. Ez hori bakarrik, muga horiek saihestea edo moldatzea oso zaila da, betikotzera jotzen baitute. Hirugarrenik, askotan legezko muga horiek egon ez arren instituzio eskudunek mugatze-logika horri heltzen diote erabaki arbitrarioak hartzeko, irizpideak ordenamenduaren gainetik ipinita. Laugarrenik, Parlamentarien kontrol-parlamentarioa egiteko konstituzio-eskubidea urratu egiten da era sistematikoan. Hala, Kontrol-parlamentarioaren kalitatea eta helburuak zeharo kaltetzen dira. Gainera herritar xumeek egindako informazio eskaerari eta parlamentariak egin dezaketen eskaerari erantzun berdina ematen die, azken hauek daukaten eskubide kualifikatua alde batera utziz.

Ondorio hauek nabarmen ikusten dira aztertutako bi kasuetan. Gardentasun-atarian egindako galderari emandako erantzunak, argi uzten du autoritate publikoen informazioa helarazteko borondate eza. Bai eta ezezkoa emateko argudiaketa urria, informazioaren ezkutatzea eta gardentasunaren kontrako jarrera ere. Diputatuen Kongresuko Mahaian egindako galderan antzeko egoera dago, baita Iñarritu diputatuak egindako legez besteko proposamenean azaltzen diren egoeretan. Azken bi hauei zera lotu behar zaie, Diputatu eta orokorrean Parlamentarien informazioa eskuratzeko eskubidearen urratze nabarmena, hau da, Konstituzioak aitortutako oinarrizko eskubidearen urrapena.

Amaitzeko, aipatu beharra dut, gardentasun arloan lan ugari eta aurrerapauso handiak egon diren arren, zenbait gai oraindik ere iritzi publikotik ezkutatu egiten direla. Atzerritarren inguruko gaiak, lan honetan frogatu bezala, administrazioan dagoen “iluntasun” horren adibide garbiak dira. Erabaki hauek demokraziaren kalitatea kaltetzen dute eta herritarren bai ordezkari publikoen mesfidantza areagotu. Funtsezkoa da gaia edozelakoa denean ere gardentasunean sakontzea, Bobbiok aipatutako “Estatu ikusezin” hori are ikusezinago ez egiteko, eta denon informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzeko.

V. BIBLIOGRAFIA

BARBERO, Iker (2016) “El acceso a los centros de internamiento para extranjeros como control y garantía de derechos” *Derechos y libertades*, 37 zbka, 233-256 orr

BLANES CLIMENT, Miguel (2021) “Las relaciones internacionales y la seguridad pública como límites del derecho de acceso a la información pública: la opaca ayuda a Marruecos de 32 millones de euros” *Miguel Ángel Blanes – Blog de Transparencia y Gobierno Abierto*, <https://miguelangelblanes.com/2021/01/11/las-relaciones-internacionales-y-la-seguridad-publica-como-limites-del-derecho-de-acceso-a-la-informacion-publica-la-opaca-ayuda-a-marruecos-de-32-millones-de-euros/>

BOBBIO, Norberto (1985) “La crisis de la democracia y la lección de los clásicos”, *Crisis de la democracia*. Ariel

BOBBIO, Norberto (1986) “El futuro de la democracia”. México: Fondo de Cultura Económica

CANO BUESO, Juan (1997) “Información parlamentaria y secretos oficiales”. *Revista de las Cortes Generales*, 42 zbka, 7-34 orr.

COTINO HUESO, Lorenzo (2021) “Los derechos fundamentales de acceso a la información pública, sus límites y la supletoriedad de la legislación general de transparencia” *Los límites al derecho de acceso a la información pública*, 1.º edizioa, 22-60 orr

DELPIAZZO, Carlos E. (2008) “Acerca del control social de la gestión pública”. *Revista do Direito*, 29 zbka, 116-128 orr

GIANNINI, Massimo Severo (1976) “Control, noción y problemas en el Derecho Italiano”. Anuario de Derecho Administrativo, I. liburukia

GONZALEZ ALONSO, Luis Norberto (2008) “Artículo 42. Derecho de acceso a los Documentos” *Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea. Comentario artículo por artículo*, 664-677 orr

IZQUIERDO, Agustín (1994) “Ética y Administración”. *Papeles de Trabajo del Instituto Ortega y Gasset, Serie: Gobierno y Administración Pública*

KORVER, Richard (2018) “European Agencies, Common Approach and Parliamentary Scrutiny, European Implementation Assessment” EPRS.

PALOMARES HERRERA, Manuel (2017) “Panorámica de la transparencia en el estado y la tendencia del derecho de acceso a la información pública en España” *Revista de Estudios Jurídicos*, 17/2017 zbka

PÉREZ CONCHILLO, Eloísa (2020) “El derecho de acceso a la información pública como derecho fundamental”. *Setenta años de Constitución Italiana y cuarenta años de Constitución Española, Volumen II: Derechos Fundamentales*, 229-244 orr

PORRAS RAMÍREZ, José María (2014) “Los límites a la transparencia. El menguado alcance del derecho de los ciudadanos a acceder a la información en poder de las instituciones europeas”, *Teoría y Realidad Constitucional*, 33 zbka, 283-303 orr.

RAZQUIN LIZARRAGA, Martín María (2018) “Límites del derecho de información de los diputados”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 38. zbka, 113 zbka, 37-69 orr

RODRIGUEZ-ARANA MUÑOZ, Xaime (1995) “La transparencia en la administración pública”. *Revista vasca de Administración Pública – Herri Arduraltzarako Euskal Aldizkaria*, 42 zbka, 447-466 orr.

SÁNCHEZ BARRILAO, J.F. (2016) “Unión Europea y globalización: reivindicando una Europa de los ciudadanos”, en AA.VV. *Estudios en homenaje al Profesor y Magistrado Luis Ortega Álvarez*, Thomson Reuters / Aranzadi, XXX-XX orrialdeak.

SANTAOLALLA LÓPEZ, Fernando “Sinopsis artículo 111” *App congreso, Constitución*
<https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=111&tipo=2>

SAYAGUES LASO, Enrique (1959) *Tratado de Derecho Administrativo*, II. liburukia, 441. orr.

SENDÍN MATEOS, José Antonio (2020) “Transparencia y secretos de Estado: Las restricciones al derecho de acceso a la información en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia y buen gobierno” *Setenta años de Constitución Italiana y cuarenta años de Constitución Española, Volumen II: Derechos Fundamentales*, 245-259 orr

ARAUDIA

- Nazioartekoa
 - Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna. New York, 1966ko abenduaren 16
 - Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. Paris, 1948ko abenduaren 10.
 - Giza Eskubideen Europako Hitzarmena. Erroma, 1950eko azaroaren 4

- Europar Batasunekoa
 - Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna. 2000ko abenduaren 7koa.
 - Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturia. 2007ko abenduaren 13koa.
 - Europar Batasuneko Trataturia. 2007ko abenduaren 3koa.
 - Dokumentu Publikoetarako Sarbiderako Europako Hitzarmena (Europako Kontseilua). Tromsø, 2009ko ekainaren 18.
 - Europar Batasuna. Europako Kontseiluaren 1049/2001 Erregelamendua, Europako Parlamentu, Kontseilu eta Batzordeko dokumentuen sarbide publikoa xedatzen duena. 2001eko maiatzaren 3koa.

- Espainiar Estatukoa
 - Espainiako Konstituzioa (EK). 1978ko abenduaren 6 (Espainia).
 - 9/2013 Legea, 2013koa. Gardentasunari, Informazio Publikorako Sarbideari eta Gobernu Onari buruzkoa. 2013ko abenduaren 9koa. BOE 295 zbka.
 - 9/1968 Legea, 1968koa. Sekretu Ofizialei buruzkoa. 1968ko apirilaren 5koa. BOE 84. zbka.
 - 1982ko otsailaren 24ko ebazpena (Gorte Orokorrak). Zeinaren bidez Diputatuen Kongresuko Erregelamendua adosten den. 1982ko otsailaren 24koa. BOE 55 zbka.
 - 39/2015 Legea, 2015koa. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideei buruzkoa. 2015eko urriaren 2koa. BOE 236 zbka.
 - 463/2020 Errege-Dekretua, 2020ko martxoaren 14koa, zeinaren bitartez COVID-19ak sortutako osasun-krisiari aurre egiteko alarma-egoera zehazten baiten. BOE 67.

JURISPRUDENTZIA

- Espainia. Konstituzio Auzitegia (Osoko Bilkura). 161/1988 sententzia
- Espainia. Konstituzio Auzitegia (Osoko Bilkura). 32/1985 sententzia
- Espainia. Konstituzio Auzitegia (Osoko Bilkura). 32/2017 sententzia

- Espainia. Auzitegi Gorena (Administrazioarekiko Auzien Sala, 7. sekzioa). 4591/2015 sententzia, 2015eko ekainaren 15koa.
- Espainia. Auzitegi Gorena (Administrazioarekiko Auzien Sala, 7. sekzioa). 4268/2011 errekurtoa, 2013ko otsailaren 25a.